



**LESAKAKO UDALA (NAVARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DEL
BILERA.**

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohikoa.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2021.02.25.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

Bertaratuak:

Alkatea: Ladis Satrustegui Alzugaray jn.

Zinegotziak:

Maitane Rodriguez Etxabide and.

Iban Garro Alzuri jn.

Maider Arrieta Tapia and.

Iratxe Batiz Barzena and.

Mattin Etxabide Gartzia jn.

José Luis Echegaray Andueza jn.

Ione Fagoaga Echarte and.

Iban de Prado Echepeleku jn.

Esteban Irazoqui Irazoqui jn.

Jose Maria Portu Ochoteco jn.

Idazkaria: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

**1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION
AKTAREN ONESPENA.**

Organo: Pleno.

Sesión: ordinaria.

Convocatoria: primera.

Día: 25.02.2021.

Hora: 19:00 horas de la tarde.

Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka.

Asistentes:

Alcalde: D. Ladis Satrustegui Alzugaray.

Concejales:

Dña. Maitane Rodriguez Etxabide.

D. Iban Garro Alzuri.

Dña. Maider Arrieta Tapia.

Dña. Iratxe Batiz Barzena.

D. Mattin Etxabide Gartzia.

D. José Luis Echegaray Andueza.

Dña. Ione Fagoaga Echarte.

D. Iban de Prado Echepeleku.

D. Esteban Irazoqui Irazoqui.

D. José María Portu Ochoteco.

Secretaria: Dña. M. José Larrayoz Ariztegui.

En cumplimiento de lo acordado por el Pleno del Ayuntamiento con fecha 19 de junio de 2015, se realizará una grabación de sonido de la totalidad de la sesión, con el fin de colgarla posteriormente en la página web municipal.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, conforme a la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

1.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA ÚLTIMA SESIÓN.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du,
2021eko urtarrilaren 21eko akta.

*El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta
de la sesión celebrada el día 21 de enero de 2021.*

**2.-JUAN JOSE MARICHALAR
ZUBIA JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN
APROBETXAMENDUA.**

2020ko azaroaren 27an (3779. sarrera Udaleko Erregistro Orkorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.)Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Juan Jose Marichalar Zubia jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: 20 txopoentresaka, Lupangoerreca paraje. Moztu behar den azalera 8.261,00 m² –koa da. Katastroko 3. poligonoko 261 T partzelerai dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2020/23).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztago ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinarazikoa zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makina astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasak jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteek kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koia izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteek kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean

**2.-APROVECHAMIENTO FORESTAL
SOLICITADO POR D. JUAN JOSÉ
MARICHALAR ZUBIA.**

Examinada la instancia presentada con fecha 27 de noviembre de 2020 (entrada nº 3779 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1.) *Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Juan José Marichalar Zubia para realizar una entresaca de 20 chopos en el paraje de Lupangoerreca. La superficie de corta es de unos 8.261,00 m². Corresponde a la parcela 261 T del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2020/23).*

2.) *Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicarlo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el estado de los caminos utilizados.*

Para ello tendrá que constituir la fianza y la tasa establecida, cuyo importe le será indicado. Los particulares que no vayan a utilizar camiones o maquinaria pesada para los trabajos a realizar, no tendrán que depositar esta fianza ni la tasa, siempre que manifiesten por escrito que esto será así y que se harán cargo de los daños que pudieran producirse. No cumplir con esto se considerará infracción de la norma, y se aplicará la siguiente multa: 3 € por cada metro cúbico solicitado, siendo el mínimo de la multa 300 €, y haciéndose cargo del resto de los daños que pudiera ocasionar.

3.) *Los caminos no podrán dejarse en malas*



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka batzuk komunalak ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

Mattin Etxabide Gartzia ateri da bilera aretotik.

**3.-PEIO ETXABIDE GARTZIA
JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN
APROBETXAMENDUA.**

2021eko otsailaren 8an (419. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitaztea Peio Etxabide Gartzia jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: 3 platanondoen entresaka, Zulangorro paraje. Moztu behar den azalera 10,00 m² -koa da. Katastroko 3. poligonoko 211.B. partzelelari dagokio (Aprobetxamenduaren erreferentzia Oihapart/2021/2).

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztu ahal izateko nola gelditu diren erabili

condiciones. Si esto sucediera, se les dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo del propietario del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

4.) La apertura de nuevas pistas requiere de autorización expresa del Ayuntamiento.

5.) Comunicarle que algunas de las fincas figuran como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de las mismas.

El concejal Mattin Etxabide Gartzia abandona la Sala de Plenos.

**3.-APROVECHAMIENTO FORESTAL
SOLICITADO POR D. PEIO ETXABIDE
GARTZIA.**

Examinada la instancia presentada con fecha 8 de febrero de 2021 (entrada nº 419 en el Registro General del Ayuntamiento), el Pleno acuerda por unanimidad:

1.) Tramitar ante el Servicio de Gestión Forestal del Gobierno de Navarra la solicitud formulada por don Peio Etxabide Gartzia para realizar una entresaca de 3 plátanos en el paraje de Zulangorro. La superficie de corte es de unos 10,00 m². Corresponde a la parcela 211 B del polígono 3 del catastro (Referencia del aprovechamiento: Oihapart/2021/2).

2.) Con carácter previo al comienzo de las labores de saca, deberá comunicarlo al Ayuntamiento y también antes de finalizar las mismas, a fin de que éste pueda comprobar el

diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinarazikoa zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarak jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea konsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koia izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka batzuk komunalak ageri direla udal catastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

Mattin Etxabide Gartzia jauna itzuli da bilera aretora.

4.- SUSTATURIKO TRANSAKZIO HITZARMENAK: ERAGINDAKO LURSAILAK KATASTROAN SARTZEA.

Lesakako Udalbatzak herri-ondasunen transakzio-hitzarmenak izapidetu ditu. Zehazki, bestea beste, 2013/10/10, 2014/06/20,

estado de los caminos utilizados.

Para ello tendrá que constituir la fianza y la tasa establecida, cuyo importe le será indicado. Los particulares que no vayan a utilizar camiones o maquinaria pesada para los trabajos a realizar, no tendrán que depositar esta fianza ni la tasa, siempre que manifiesten por escrito que esto será así y que se harán cargo de los daños que pudieran producirse. No cumplir con esto se considerará infracción de la norma, y se aplicará la siguiente multa: 3 € por cada metro cúbico solicitado, siendo el mínimo de la multa 300 €, y haciéndose cargo del resto de los daños que pudiera ocasionar.

3.) Los caminos no podrán dejarse en malas condiciones. Si esto sucediera, se les dará un plazo de quince días para arreglarlos. En caso contrario, los reparará el Ayuntamiento, a cargo del propietario del aprovechamiento.

En general, no podrá transportarse madera con tiempo lluvioso, salvo que se le conceda una autorización expresa para ello.

4.) La apertura de nuevas pistas requiere de autorización expresa del Ayuntamiento.

5.) Comunicarle que algunas de las fincas figuran como comunal en el catastro municipal, por lo que este acuerdo no supone pronunciamiento alguno sobre la propiedad de las mismas.

El concejal Mattin Etxabide Gartzia vuelve a la Sala de Plenos.

4.-INCLUSIÓN EN EL CATASTRO DE FINCAS AFECTADAS POR CONVENIOS TRANSACCIONALES DE BIENES COMUNALES.

El Pleno del Ayuntamiento de Lesaka ha tratado diversos convenios transaccionales de bienes comunales. Concretamente y entre otros, en



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

2015/07/17, 2015/10/30, 2015/11/27, 2016/07/22, sesiones celebradas los días 10/10/2013, 2017/02/24, 2017/04/21 eta 2020/07/30 egindako udako bilkuretan, San Sebastián Huici senideak, Aritz Lazcano Vendrell jauna, Jacinto Ochoteco Alzugaray jauna eta Raquel Arlegui Goyeneche, José Olasagasti Portu jauna, Juan Luis Andueza Errazquin jauna eta M.Sol Zubieta Ochoteco andrea, María Angeles Perochena Petrirena andrea, Teresa Alzugaray Portu andrea, M.José Choperena Alzugaray andrea eta José Antonio Galardi Gaztañaga jauna, Lasaga Echeverria senideak, Ana Zubieta Albistur andrea, Oihan Olaizola Ochoteco jauna eta Manuel Angel Lain del Río jauna, sustatutakoak onartu zituen.

20/06/2014, 17/07/2015, 30/10/2015, 27/11/2015, 22/07/2016, 24/02/2017, 21/04/2017 y 30/07/2020, se aprobaron los promovidos, respectivamente, por los hermanos San Sebastián Huici, don Aritz Lazcano Vendrell, don Jacinto Ochoteco Alzugaray y doña Raquel Arlegui Goyeneche, don José Olasagasti Portu, don Juan Luis Andueza Errazquin y doña M.Sol Zubieta Ochoteco, doña María Angeles Perochena Petrirena, doña Teresa Alzugaray Portu, doña M.José Choperena Alzugaray y don José Antonio Galardi Gaztañaga, Hermanos Lasaga Echeverria, doña Ana Zubieta Albistur, don Oihan Olaizola Ochoteco y don Manuel Angel Lain del Río.

Geroago, hitzarmen hauei dagozkien kontratuak onartuak izan ziren Nafarroako Gobernuko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendari Nagusiaren 2021/01/15eko eta 2021/01/19ko 51/2021, 56/2021, 57/2021, 59/2021, 60/2021, 61/2021, 62/2021, 63/2021, 64/2021, 65/2021, 66/2021, 67/2021 ebazpenen bidez.

Haren arabera, aipatutako Zuzendaritza Nagusiak onartu egin ditu Lesakako Udalaren eta hurrengo pertsonen arteko kontratuak:

- San Sebastián Huici senideak
- Aritz Lazcano Vendrell jauna
- Jacinto Ochoteco Alzugaray jauna eta Raquel Arlegui Goyeneche
- José Olasagasti Portu jauna
- Juan Luis Andueza Errazquin jauna eta M.Sol Zubieta Ochoteco andrea.
- María Angeles Perochena Petrirena andrea
- Teresa Alzugaray Portu andrea

Posteriormente los contratos correspondientes a estos convenios fueron aprobados por la Resolución 51/2021, 56/2021, 57/2021, 59/2021, 60/2021, 61/2021, 62/2021, 63/2021, 64/2021, 65/2021, 66/2021, 67/2021, del Director General de Agricultura y Ganadería del Gobierno de Navarra del día 15/01/2021 y 19/01/2021.

Conforme a ello, han sido aprobados por la citada Dirección General los contratos suscritos entre el Ayuntamiento de Lesaka y las siguientes personas:

- hermanos San Sebastián Huici
- don Aritz Lazcano Vendrell
- don Jacinto Ochoteco Alzugaray y doña Raquel Arlegui Goyeneche
- don José Olasagasti Portu
- don Juan Luis Andueza Errazquin y doña M.Sol Zubieta Ochoteco.
- doña María Angeles Perochena Petrirena
- doña Teresa Alzugaray Portu,

- M.José Choperena Alzugaray andrea eta
José Antonio Galardi Gaztañaga jauna
- Lasaga Echeverria senideak
- Ana Zubietza Albistur andrea
- Oihan Olaizola Ochoteco jauna
- Manuel Angel Lain del Río jauna
Espedienteak otsailaren 11an ospatutako
Mendi Batzordean aztertu ziren.

Orain, onesperaren ondoren, notario
eskriturak egitea eta hitzarmenaren xeedea diren
lursail horiek Jabetza-Erregistroan inskribatzear
egokitzen da.

Baino, eskriturak egin aurretik,
komenigarria da onartutako hitzarmenetan
agertzen diren lursail horiek eta titulartasun
partikularrekoak direnak, katastroan sartzea.
Horrela, lortzen da, eskriturak egokituak gelditzea,
azaleran eta mugetan, katastroan iada sartuak diren
lursailetara.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, aho
batez honako hau erabaki du:

1.) Nafarroako Gobernuko Nekazaritzako
eta Abeltzaintzako Zuzendari Nagusiaren
ebazpenek onartutako transakzio-hitzarmenetik
datozen katastro aldaketak onestea, eragindako
lursailak katastroan sar daitezen, esaten diren
neurriekin.

2.) Tracasa-ri eskatzea, katastroko aldaketa
hauen tramitazioa, behar diren notario-eskriturak
egin ahal izateko eta onartutako hitzarmenen
ondorioz onartutako erregistroan izen emateak
egiteko.

3.) Akordio hau halaber jakinaraztea
hitzarmenetako titular guztiei eta Nafarroako
Gobernuko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako

-doña M.José Choperena Alzygaray y don
José Antonio Galardi Gaztañaga,
-hermanos Lasaga Echeverria
-doña Ana Zubietza Albistur
- don Oihan Olaizola Ochoteco
-don Manuel Angel Lain del Río
*Los expedientes fueron examinados por la
Comisión de Montes del Ayuntamiento en reunión
celebrada el día 11 de febrero.*

*Procede, ahora, tras la aprobación, el
otorgar las correspondientes escrituras notariales y
la inscripción en el Registro de la propiedad de las
fincas objeto de convenio.*

*Pero, previamente a las escrituras, es
conveniente la inclusión en el catastro de las fincas
comprendidas en los convenios aprobados y que
quedan de titularidad particular. Así, se consigue
que las escrituras se ajusten, en superficie y
linderos, a las fincas ya incluidas en el catastro.*

*A la vista de todo ello, el Pleno acuerda por
unanimidad:*

*1.) Aprobar las modificaciones catastrales
derivadas de los convenios transaccionales
aprobados por las resoluciones del Director
General de Agricultura y Ganadería del Gobierno
de Navarra, a fin de que las fincas afectadas sean
incluidas en el catastro, con las medidas que se
indican.*

*2.) Solicitar a Tracasa la tramitación de
estas modificaciones catastrales, al objeto de poder
realizar las oportunas escrituras notariales e
inscripciones registrales derivadas de los convenios
aprobados.*

*3.) Que se notifique asimismo este acuerdo
a todos los titulares de los convenios y a la
Dirección General de Agricultura y Ganadería del*



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

Zuzendaritza nagusiari.

Gobierno de Navarra.

5.-JOSE LUIS ECHEGARAY ANDUEZA JAUNAREN ESKAERA, KULTUR BATZORDEAN SUSTITUIDO EN LA COMISIÓN DE ORDEZKATZEKO.

José Luis Echegaray Andueza jaunak idazki bat aurkeztu du, Esteban Irazoqui Irazoqui jaunak ordezka dezan Kultura Batzordean.

Aho batez erabaki da:

1.) Esteban Irazoqui Irazoqui jauna Kultura Batzordeko kide izendatzea, José Luis Echegaray Andueza jaunaren ordez.

2.) Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

6.- ALDAKETA, 2021eko AURREKONTUA BETEARAZTEKO OINARRIETAN. HASIERAKO ONESPENA.

22/2020 Foru Legea, abenduaren 29koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 foru legea aldatzen du, hala toki entitateen aurrekontu eta barne kontrolaren esparruari nola toki tributuen esparruari dagokionez.

Udal Kontu-hartzaitzak proposatzen du 2021eko aurrekontua betearazteko oinarien aldaketa, xedapen berrietara egokitzeko helburuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1.) 2021eko aurrekontuaren betearazteko oinarien aldaketa hasiera batez onartzea.

2.) Onetsitako akordioa Idazkaritzan egonen da ikusgai hainbost egun baliodean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, herritarrek edo

5.-SOLICITUD DE D. JOSÉ LUIS ECHEGARAY ANDUEZA PARA SER SUSTITUIDO EN LA COMISIÓN DE CULTURA.

D. José Luis Echegaray Andueza presenta un escrito planteando que sea sustituido por D. Esteban Irazoqui Irazoqui en la Comisión de Cultura.

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Nombrar a D. Esteban Irazoqui Irazoqui miembro de la Comisión de Cultura en sustitución de D. José Luis Echegaray Andueza.

2.) Notificar este acuerdo a los interesados.

6.- APROBACIÓN INICIAL DE LA MODIFICACIÓN DE LAS BASES DE EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2021.

Mediante la Ley Foral 22/2020, de 29 de diciembre, se modifica la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales de Navarra que afectan tanto al ámbito presupuestario y de control interno de las entidades locales como al ámbito de los tributos locales.

La Intervención Municipal propone modificar las bases de ejecución del presupuesto del ejercicio 2021 al objeto de adaptarlas a las nuevas disposiciones.

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Aprobar inicialmente la modificación de las bases de ejecución del presupuesto del ejercicio 2021.

2.) Exponer este acuerdo en Secretaría durante quince días hábiles, a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el Boletín Oficial de Navarra, a fin de que los vecinos

interesdunek espedientea azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten. Behin aipatu epe hori iraganda erreklamazio, eragozpen edo oharrik aurkeztu gabe, aipatutako aldaketa behin betiko onetsi dela joko da. Kasu horretan, ondorio juridikorik eragiteko, hala gertatu dela argitaratu beharko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean, behin betiko testuarekin batera.

o interesados puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes. Una vez transcurrido el mencionado plazo sin que se hubiesen presentado reclamaciones, reparos u observaciones, se entenderá aprobada definitivamente la citada modificación. En este supuesto, para la producción de efectos jurídicos, deberá publicarse tal circunstancia, junto con el texto definitivo, en el Boletín Oficial de Navarra.

**7.-MARTXOAREN
ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

8KO

**7.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL
DEL DÍA 8 DE MARZO.**

Maitane Rodriguez Etxabide andrea, Maider Arrieta Tapia eta Iratxe Batiz Barzena andrea zinegotziek irakurri dute, martxoaren 8ko adierazpen instituzionalaren testua. Hona hemen edukia:

Se da lectura por las concejales dña. Maitane Rodriguez Etxabide, dña. Maider Arrieta Tapia y dña. Iratxe Batiz Barzena el texto de la declaración institucional del día 8 de marzo, siendo su contenido el siguiente:

“MARTXOAREN 8a ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Duela ia urtebete gure jendartea eta bizitzeko moduak astintzen zituen COVID19ak eragindako pandemiak , inoiz ez bezala. Krisi multidiimentsional eta sistemiko bat bizi dugu, aurrekaririk gabekoa, lehendik zetozten beste krisi batzuekin gurutzatzen eta lotzen den krisia, hala nola krisi ekologikoa eta zaintzen krisiekkin.

Ezerk ez du bizitzaren zaintza baino garrantzitsuagoa izan behar, pandemiarekin muturreraino ahuldu eta prekarizatu den bizitza.

Eraldaketa erradikalak behar ditugu, feminismoak ozen dio aspaldi. Gure gizarteak justizian eta demokrazian aurrera egin dezan, erdigunean erreprodukzio sozial jasangarria jar dezaten politika publikoak behar ditugu, kapital-metaketa baztertuz, zeinak gizarte-gehiengoen bizi-baldintzak prekarioagoak bihurtzen baititu, merkantilizatu egiten baitu eta natura ustiatzen baitu, belaunaldi berrien etorkizuna arriskuan jarritz. Eta orain, krisi honek desberdintasunak areagotzea eta emakumeen eskubideetan atzerapena eragin ez dezan, are premiazkoagoa da genero-ikuspegia eta ikuspegi interseksionala txertatzen duten neurri feministak hartzea.

Hilabete hauetan genero-desberdintasun estructuralen gorakada errealtitate ukaezina da: emakumeek beren gain hartu dute zaintzen karga gehiena, ordaindua eta ordaindu gabea; lana galdu edo lan-baldintza are prekarizatuagoak ezarri dizkiete; birusa hartzeko arrisku handiagoa dute, genero-



LESAKAKO UDALA (NAVARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

ikuspegiarekin ikertu gabe jarraitzen zuten bitartean; indarkeria matxista areagotu egin da, hari aurre egiteko baliabideak eta baldintza materialak mugatzen ziren bitartean; beste behar batzuk baztertu egin dira, hala nola sexu- eta ugalketa-osasuna edo osasun mentalarekin lotuak; parte-hartze soziopolitikorako aukera eta baldintzak galdu dituzte, etab.: azken batean, eta batez ere kolektibo zaurgarrienetako emakumeei dagokienez, pobretu dira zentzu guztietan, indarkeriaren aurrean babesgabeago daude, haien osasuna okertu egin da, zaintza-lanen zama handiagoa da...

Irtenbidea ez da pandemiaren aurreko egoerara itzultzea, emakume gehienek lehenago ere bizi baitzuten diskriminazioa eta eskubideen urraketa: orain da unea pandemian areagotutako larrialdiei erantzuna emateko, eta, aldi berean, guztiotzako bizitza duina bermatzea eta zaintza lehentasuntzat joko duen antolaketa sozial, ekologiko eta ekonomikoko sistema bateranzko oinarri sendoak ezartzeko.

Martxoaren 8aren atarian gaude. Egun honek udal honek politika publiko-komunitario feministekin duen konpromisoa berresteko balio behar du, krisiaren ondoriozko larrialdiei erantzuteko eta erdigunean bizitza zainduko duen gizarte-eredu baterantz joateko.

Horregatik guztiagatik, Lesakako Udalak honako hau erabaki du:

1.COVID19aren ondorioak eta kolektibo eta pertsona ahulenen egoera eta beharrak aztertzea, besteak beste: bakarrik bizi diren adinekoak (nagusiki isolatuak bizi direnak eta emakumeak), guraso bakarreko amak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrek, kalean dauden pertsonak, familia-eremuko zaintzaileak (ordainduak eta ez ordainduak), emakume langabeak, etab. Ikuspegi feministak eta tokiko eragile sozialen parte-hartza bermatu beharko da, bereziki emakume eta feministena.

2.Errealitate horren eta identifikatutako beharren aurrean, premiazko ekintza eta neurri sorta bat identifikatzea eta plangintza batean jasotzea, baliabideak, kronograma eta arduradunak zehaztuz eta herritarren parte-hartza bermatz, bereziki emakumeen kolektiboena, bai diseinuan, bai jarraipenean eta ebaluazioan. Mota honetakoak izan daitezke, besteak beste:

-Kolektibo zaurgarriei arreta emateko eredu eta funtzionamendua berrikustea, pertsona / kolektiboen mota zein emandako zerbitzuen funtzionamendua eta edukia zabaltzeko, ikuspegi feministak eta ahalduntze-ikuspegitik, adibidez: adineko pertsonak (bereziki bakarrik bizi direnak eta emakumeak), familia kalteberak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak eta haurrek, etxe langileak, ordaindu gabeko zaintzaileak familia-eremuan, etorri berriak (egindako azterketaren eta gure errealitatearen arabera)...

-Premia horiei behar bezala erantzungsdi dieten zerbitzuak eta baliabideak identifikatzea eta abian jartzea: bakarrik bizi diren adinekoen jarraipen zuzena, etxebizitzako baliabideak erraztea (alokairu soziala, etxebizitzako komunitarioak), etxez etxeko laguntza-zerbitzua indartzea eta egokitzea, zainketekin lotutako erabilera komunitarioako udal-espazioak egokitzea, indarkeriaren biktimentzako baliabide berriak, ezohiko diru-laguntzak eta/edo laguntza ekonomiko osagariak, etab.

-Zaintzaileen baldintzak (ordainduak eta ez ordainduak) duintzeko ekintzak: informazioa, aholkularitza, eredu kooperatiboak bultzatzeko laguntza-ildoak, etab.

3.Emakume, nerabe eta neskatoen ahalduntze individual eta kolektiborako ekintzak bultzatzea,

kolektibo feministen eskutik.

4.Gure herriko emakumeen ehun-soziala indartzea, premisa feministatik eta ahalduntze-premisetatik.

5.Tokiko zaintza sare komunitarioei babesia eta baliabideak ematea.

6.Zaintza-lanen balio sozial eta politikoa aitortzen duten komunikazio-kanpainak egitea, erantzunkidetasunari arreta berezia eskainiz eta etxeko langileenak bezalako errealtitateak ikusaraziz.

7.Premisa feministatik abiatuta, zaintzei buruzko herri eztabaidea-guneak irekitzea, askotariko kolektibo sozial, administrazioa eta gure udalerrian dauden beste sektore batzuk implikatuz, eta zaintzen erantzunkidetasunerako tokiko itun bat bultzatzea.

8.Harrera publiko-komunitarioko programak sustatzea iritsi berriak diren pertsonentzat, tokiko eragile sozialen parte-hartzearekin eta kolektibo ahulenei arreta berezia jarritz, genero-ikuspegia aplikatuz.

9.Zeharka, identifikatu diren Udalerriko emakume zein kolektibo feministek parte hartzeko bideak irekiko dira, identifikatu diren jarduera guztien diseinutik ebaluazioraino parte hartu ahal izateko, euren iritzia kontuan hartuz.

Bat egiten dugu mugimendu feministak Martxoak 8rako deitutako mobilizazioekin, eta Lesakarrei dei egiten diegu gure herrian deitutako mobilizazio eta ekintzetan har dezan”.

Aho batez erabaki da.

1.) Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala onartzea.

8.-IGANTZIKO UDALEKO PROPOSAMENA, BERDINTASUN ZERBITZUA EMATEKO PROPOSAMENA.

Igantziko Udalak bost udaletako alkateek egindako hitzarmena bidali du, Bortzirietako udalerrietan berdintasun-zerbitzu bat emateko eta berdintasun-teknikari bat kontratatzeko.

EH Bildu taldeak hitzarmen horri honako hau gehitu dio hitzarmenaren bigarren klausulan: "Bortzirietako herrietako udal baten batek horrela eskatuz gero, herri horretan, gutxienez astean behin, teknikariaren presentzia bermatuko da".

Bi proposamenak bozkatu dira.

Igantziko Udalaren proposamenak ez du aldeko botorik jaso.

Por unanimidad, SE ACUERDA.

1.) Aprobar la declaración institucional del día 8 de marzo.

8.-PROPIEDAD DEL AYUNTAMIENTO DE IGANTZI PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE IGUALDAD.

El Ayuntamiento de Igantzi remite el convenio elaborado por los alcaldes de los 5 ayuntamientos para dar un servicio de igualdad en los municipios de Bortziriak y contratar un técnico de igualdad.

El grupo EH Bildu añade a dicho convenio lo siguiente en la segunda cláusula del citado convenio: "Si algunos de los Ayuntamientos de Bortziriak así lo solicita, se garantizará que al menos una vez a la semana acuda el técnico a dicha localidad".

Se procede a votar ambas propuestas.

La propuesta del Ayuntamiento de Igantzi no obtiene ningún voto a favor.



**LESAKAKO UDALA (NAVARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

EH Bildu taldeak aldatutako Igantziko

Udalaren proposamenak aldeko 11 boto jaso ditu.

Ondorioz, aho batez, erabaki da:

1.) Igantziko Udalak bidalitako hitzarmenaren testua onartzea, honako paragrafo hau gehitzeko baldintzapean:

-: "Bortzirietako herrietako udal baten batek horrela eskatuz gero, herri horretan, gutxienez astean behin, teknikariaren presentzia bermatuko da"

2.) Erabaki hau Igantziko Udalari bidaltzea.

La propuesta del Ayuntamiento de Igantzi modificada por la propuesta del grupo EH Bildu obtiene 11 votos a favor.

En consecuencia, por unanimidad, SE ACUERDA:

1.) Aprobar el texto del convenio remitido por el Ayuntamiento de Igantzi condicionado a añadir el siguiente párrafo:

-: "Si algunos de los Ayuntamientos de Bortziriak así lo solicita, se garantizará que al menos una vez a la semana acuda el técnico a dicha localidad".

2.) Remitir este acuerdo al Ayuntamiento de Igantzi.

**9.-BORTZIRIETAKO EUSKARA
MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETAREN ONESPENA.**

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaleak 2020/01/23an egindako bileran, Mankomunitatearen Estatutuen 11.3 artikulua aldatzea onartu zen, honako aurreikuspen hau gehitzeko: ""Udal bakoitza ordezkarien ordezkoak izendatuko ditu, titularrak lan, osasun edo familia arrazoiengatik Batzorde Erabakitzalearen bileretan ezin parte hartzea adierazten duen kasuetarako".

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 50. artikuluan aurrekitako izapideak bete direla egiaztu ondoren, Mankomunitateak bidali du Lurralde Kohesiorako Departamentuko Toki Entitateentzako Aholkularitza Juridikorako eta Lankidetzarako Zerbitzuaren aldeko txostena, prozedurarekin jarraitzen.

9.-APROBACIÓN DE LA MODIFICACIÓN DE LOS ESTATUTOS DE LA MANCOMUNIDAD DE EUSKERA DE BORTZIRIAK.

En la sesión celebrada por la Comisión ejecutiva de la Mancomunidad de Euskara de Bortziriak el día 23/01/2020 se aprueba la modificación del artículo 11.3 de los Estatutos de la Mancomunidad al objeto de añadir la siguiente previsión: "Cada Ayuntamiento designará representantes suplentes para aquellos casos en los que el titular manifieste su imposibilidad de asistir a las reuniones de la Comisión Ejecutiva por razones laborales, sanitarias o familiares".

Acreditado el cumplimiento de los trámites previstos en el artículo 50 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio, la Mancomunidad remite el informe favorable del Servicio de Asesoramiento Jurídico y Cooperación con las Entidades Locales del Departamento de Cohesión Territorial a la citada modificación a efectos de continuar con el procedimiento.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 50. artikuluaren arabera, Mankomunitatearen Estatutuen aldaketa behin betiko onartzeko, beharrezkoa izanen da tokiko erakundeen bi herenek aldeko bota ematea.

Aho batez, zeina bi herenen gehiengoa baita, honako hau erabaki da:

1.) Mankomunitatearen estatutuen 11.3 artikuluaren aldaketa onartzea, honako aurreikuspen hau gehitzeko: ""Udal bakoitzak ordezkarien ordezkoak izendatuko ditu, titularrak lan, osasun edo familia arrazoiengatik Batzorde Erabakitzalearen bileretan ezin parte hartzea adierazten duen kasuetarako".

2.) Erabaki hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea.

Conforme al artículo 50 de la Ley Foral 6/1990 de la Administración Local de Navarra, la aprobación definitiva de la modificación de los Estatutos de la Mancomunidad precisará la votación favorable en las dos terceras partes de las entidades locales integrantes.

Por unanimidad, que representa la mayoría de las dos terceras partes, SE ACUERDA:

1.) Aprobar la modificación del artículo 11.3 de los Estatutos de la Mancomunidad al objeto de añadir la siguiente previsión: "Cada Ayuntamiento designará representantes suplentes para aquellos casos en los que el titular manifieste su imposibilidad de asistir a las reuniones de la Comisión Ejecutiva por razones laborales, sanitarias o familiares".

2.) Notificar este acuerdo a la Mancomunidad de Euskara de Bortziriak.

10.-ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazenen zerrenda (19/2021 ebazenetik 69/2021 ebazen arte). Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

Ondoren, eta Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 91.4 artikuluak xedatutakoaren arabera, alkate jaunak galdu du ea talde politikoren batek premiazko arrazoiak direla-eta Udalbatzak eztabaidatzea nahi duen aferarik ote duen, deialdiarekin batera zihohan gai-zerrendan ez zegoena eta "eskari-galderak" puntuan sartzerik ez duena.

10.- CONOCIMIENTO DE LAS RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA.

Se ha pasado a todos los concejales, mediante correo electrónico, la relación de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía, desde la última sesión hasta hoy (desde la nº 19/2021 hasta la nº 69/2021). A los que no lo tienen, se les deja una copia impresa en papel de la citada lista, en su respectiva bandeja.

Seguidamente y conforme a lo establecido por el artículo 91.4 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales, el señor alcalde pregunta si algún grupo político desea someter a la consideración del Pleno, por razones de urgencia, algún asunto no comprendido en el orden del día que acompañaba a la convocatoria y que no tenga cabida en el punto de ruegos y preguntas.



**LESAKAKO UDALA (NAVARROA)
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

Ez da inolako gairik planteatu.

No se plantea cuestión alguna.

**11.- OSOKO BILKURAREN
KONTROL-JARDUERA.ESKARI
GALDERAK.**

Ez dira izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hamabost minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiatztu egiten dut.

**11.- ACTIVIDAD DE CONTROL DEL
PLENO.RUEGOS Y PREGUNTAS.**

No se formulan.

Siendo las diecinueve horas y quince minutos del día de la fecha y no habiendo más asuntos que tratar, el señor alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como secretaria, certifico.



